# Xenpelar

tailerrak

## Curso 2024-25 ikasturtea




ERRENTERIA UDALA

KULTURA kreaktiboa

# AURKIBIDEA · ÍNDICE

**Egur tailla** • Talla en madera **1**

**Pintura 3**

**Argazkigintza** • Fotografía **6**

**Zeramika** • Cerámica **9**

**Zaharberritzea** • Restauración **11**

**Patchwork 13**

**Izen ematea** • Inscripción 15

**Egutegia** • Calendario 15

**Tasak** • Tasas 16

**Oharrak** • Observaciones 17




| URTEKO IKASTAROAK · CURSOS ANUALES | | | | | | | Orduak Horas |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E-101 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 6 |
| E-102 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 6 |
| E-103 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 15:00-18:00 | 6 |
| E-104 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 18:00-21:00 | 6 |
| E-101 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 6 |
| E-102 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 6 |
| E-103 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 15:00-18:00 | 6 |
| E-104 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 18:00-21:00 | 6 |

**Hastapen ikastaroa**
Curso de iniciación

**Garatu zure proiektuak**
Desarrolla tus proyectos

# EGUR TAILLA

## TALLA EN MADERA



## Hastapen ikastaroa

Egur taillaren oinarrizko ezagutzak landuko dira: zur motak, marrazkia zein diseinua eta taillatzeko tresnak. Arreta berezia eskainiko zaio piezak irudikatu, hustu, modelatu, kalatuak egin, ukituak eman, akabera eman eta beste hainbat teknikari.

## Curso de iniciación

Se trabajarán los conocimientos básicos de la talla de madera: tipos de madera, dibujo y diseño, o herramientas de tallado. Se prestará especial atención a diversas técnicas como la representación de las piezas,  el vaciado, el modelado, el calado, el retoque o el acabado, entre otras.

## Garatu zure proiektuak

Egur taillan esperientzia duten ikasleei zuzendutako tailerra. Norberak gustuko dituen proiektuak proposatu ahal izango ditu bertan eta horiek garatzeko urrats guztiak landuko ditu: plangintza, marrazketa eta diseinua, eskalak, akoplamenduak, finkatze iraunkor eta desmuntagarriak, arbastatzeko aukerak edo obraren akabera ezberdinak.

## Desarrolla tus proyectos

Se trata de un taller dirigido al alumnado con experiencia. Cada participante podrá proponer los proyectos que desea realizar y trabajará en todos los pasos necesarios para llevarlo a cabo: planificación, el dibujo y el diseño, las escalas, los acoplamientos, las fijaciones permanentes y las desmontables, los métodos de desbastado o los diferentes acabados de la obra.

# PINTURA

## URTEKO IKASTAROAK · CURSOS ANUALES

| | | | | | | | Orduak / Horas |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P-301 | ● | ○ | ○ | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 3 |
| P-302 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 3 |
| P-303 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |
| P-304 | ○ | ○ | ○ | ● | ○ | 16:00-19:00 | 3 |

- **Hastapen ikastaroa** – Curso de iniciación
- **Ikastaro aurreratua** – Curso avanzado
- **Garatu zure proiektuak** – Desarrolla tus proyectos

## LAUHILEKO IKASTAROAK · CURSOS CUATRIMESTRALES

### 1. LAUHILEKOA · 1º CUATRIMESTRE

| | | | | | | | Orduak / Horas |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P-305 | ○ | ○ | ● | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |
| P-306 | ○ | ○ | ● | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 3 |

- **Van Goghen eran margotzen** – Pintando al estilo de Van Gogh
- **Teknika mistoak: testurak** – Técnicas mixtas: texturas

### 2. LAUHILEKOA · 2º CUATRIMESTRE

| | | | | | | | Orduak / Horas |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| P-307 | ○ | ○ | ● | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |
| P-308 | ○ | ○ | ● | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 3 |

- **Naturaletik margotzea: natura hila eta paisaia** – Pintura del natural: bodegón y paisaje
- **Erretratuak koloretako arkatzez** – Retratos a lápices de colores



## Hastapen ikastaroa

Eskarmenturik izan ez, eta marrazketa-teknikak ikasi eta koloreen nahasketak menperatu nahi dituzten pertsonentzat, gerora koadro bat margotu ahal izateko. Marrazketarako materialak, material osagarriak eta itzalak egiteko metodoak landuko dira. Akrilikoaren teknikaren hastapen gisa, koadro baten kopia egingo da.

## Curso de iniciación

Para personas sin experiencia anterior que quieran aprender las técnicas de dibujo y dominar las mezclas de los colores como base previa a pintar un cuadro. Se trabajarán los distintos materiales de dibujo y los materiales auxiliares así como los métodos de sombreado. Se realizará la copia de un cuadro como iniciación a la técnica del acrílico.

## Ikastaro aurreratua

Hastapen tailerrean aritutako pertsonentzat, edo marrazketa eta pinturari buruzko oinarrizko ezagutzak badituztenentzat. Paper gaineko kolore-teknikak, materialak, efektuak eta babesetatik hasiz, olioarekin eta/edo akrilikoarekin lan egingo da. Ikastaroa amaitzeko, espatula eta teknika mistoak erabiliko dira.

## Curso avanzado

Para personas que hayan pasado por el taller de iniciación o que ya tengan unas nociones básicas de dibujo y pintura. Comenzando por las técnicas de color sobre papel, materiales, efectos y protecciones, se trabajará con óleo y/o acrílico. El curso finalizará con la utilización de la espátula y las técnicas mixtas.

## Garatu zure proiektuak

Marrazketari eta pinturari buruzko oinarrizko ezagutzak dituzten pertsonei zuzendua. Ikasle bakoitzak ikasturtean zehar nahi dituen proiektuak egin ahal izango ditu, marrazketakoak zein pinturakoak. Gainera, elkarrekin adostuta, kanpoan margotzeko irteerak edo lan esperimentalak ere egin ahal izango dira.

## Desarrolla tus proyectos

Dirigido a personas con nociones básicas de dibujo y pintura. Cada persona podrá realizar los proyectos que quiera a lo largo del curso, bien sea de dibujo como pintura. Además, acordándolo conjuntamente, se podrán realizar salidas para pintar en el exterior o llevar a cabo trabajos experimentales.

## Van Goghen eran margotzen

Marrazten eta margotzen dakiten ikasleei zuzendua. Helburua estilo inpresionistan margotzen ikastea da. Horretarako Van Goghen eran margotzen irakatsiko da, enpaste teknika akrilikoak erabiliz.

## Pintando al estilo de Van Gogh

Dirigido al alumnado que tenga nociones de dibujo y pintura. El objetivo es aprender a pintar en estilo impresionista. Para ello se enseñará a pintar a la manera de Van Gogh, utilizando técnicas acrílicas de empaste.

# PINTURA

## Teknika mistoak: testurak

Marrazketaren oinarriak ezagutzen dituztenentzat. Teknika mistoak teknika bat baino gehiago artelan berean aplikatzean datza. Ikastaro honetan egin daitezken nahasketak ezagutuko dituzte, baita testura bisual eta materiala ere.

## Técnicas mixtas: texturas

Curso pensado para las personas que conocen los fundamentos del dibujo. Las técnicas mixtas consisten en la aplicación de más de una técnica en una misma obra de arte. En este curso se conocerán las mezclas que se pueden hacer, así como la textura visual y material

## Naturaletik margotzea: natura hila eta paisaia

Marrazketaren oinarrizko ezagutzak dituztenentzat. Ikastaro honetan ez dira kopiak egingo. Eguraldiaren arabera, paisaiak margotuko dira kalean edo natura hilak prestatuko dira klasean. Horretarako edozein teknika erabiliko da, garrantzitsuena naturaletik margotzen edo marrazten ikastea baita.

## Pintura del natural: bodegón y paisaje

Dirigido a personas con conocimientos básicos de dibujo. En este curso no se harán copias. Dependiendo del tiempo, se pintarán paisajes en la calle o se prepararán bodegones en clase. Para ello se utilizará cualquier técnica, ya que lo importante es aprender a pintar o dibujar desde el natural.

## Erretratuak koloretako arkatzaz

Ezinbestekoa izango da marrazketaren inguruko nozioak izatea. Ikastaro honetan giza aurpegiaren ahokadura landuko da koloretako arkatzekin. Aurrez aurreko, profilezko eta hiru laurdenetako erretratuak egingo dira. Kolorezko arkatzen nahasketak egiten irakatsiko da, da, bai argizariarekin eta baita akuarelagarriekin ere.

## Retratos a lápices de colores

Será imprescindible tener nociones de dibujo. En este curso se trabajará el encaje del rostro humano a lápices de colores. Se realizará retrato frontal de perfil y de tres cuartos. Además, se enseñará a mezclar con los lápices de colores, tanto a la cera como acuarelables.

# ARGAZKIGINTZA
## FOTOGRAFÍA

### URTEKO IKASTAROAK · CURSOS ANUALES

| | | | | | | | Orduak Horas | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ar-501 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 16:00-18:00 | 4 | **Garatu zure proiektuak** Desarrolla tus proyectos |
| Ar-502 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 15:30-17:30 | 4 | **Hastapen Ikastaroa** Curso de iniciación |
| Ar-502 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 15:30-17:30 | 4 | **Ikastaro aurreratua** Curso avanzado |
| Ar-503 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 3 | **Argazkigintza mugikorrekin** Fotografía con móviles |
| Ar-504 | ○ | ○ | ○ | ● | ○ | 18:00-21:00 | 3 | **Analogikora itzulera (laborategia zuri-beltzean)** Vuelta a lo analógico (laboratorio en blanco y negro) |

### LAUHILEKO IKASTAROAK · CURSOS CUATRIMESTRALES

**1. LAUHILEKOA · 1º CUATRIMESTRE**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ar-505 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 17:30-19:30 | 4 | **Estudioko argazkigintza** Fotografía de estudio |

**2. LAUHILEKOA · 2º CUATRIMESTRE**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ar-506 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 17:30-19:30 | 4 | **Kameraren erabilera** Manejo de cámara |



## Garatu zure proiektuak

Argazkigintzan eta edizioan aurretiazko ezagutzak dituzten pertsonei zuzendua. Tailer honek denbora faltagatik askotan airean geratzen diren proiektu horiek praktikara eraman nahi ditu: familiako argazki zaharren moldaketa, fotoalbumak sortzea edo fotobideoak garatzea beharrezko aholkularitzarekin.

## Desarrolla tus proyectos

Dirigido a personas con conocimientos previos en fotografía y edición. Este taller pretende llevar a la práctica esos proyectos que muchas veces se quedan en el aire por falta de tiempo: retocar fotografiás antiguas familiares, crear fotoálbumes o desarrollar fotovídeos con el asesoramiento necesario.

## Hastapen ikastaroa

Tailer honetan argazkigintza digitalaren bi zutabe nagusiak erakutsi nahi dira: kameraren erabilera eta argazkien edizioa. Hautapen-tresnak ikasten hasiko dira, gero moldaketak egiten ikasteko, eta, amaitzeko, doikuntza-tresnak eta geruzak erabiliko dira.

## Curso de iniciación

En este taller se pretenden enseñar los dos pilares fundamentales de la fotografía digital: el manejo de la cámara y la edición de fotografías. Se comenzará en el aprendizaje de las herramientas de selección, después se pasará a las de retoque, para finalizar con herramientas de ajustes y capas.

## Ikastaro aurreratua

Argazkigintzako eta edizioko oinarrizko ezagutzak behar dira. Ikastaro honetan sakonduko da kameraren erabileran, eskuzko modua nabarmenduz eta edizio-tresnetan. Tailer hau osatzeko estudioko saioak egingo dira eta fotobideoren bat muntatuko da.

## Curso avanzado

Se requiere de conocimientos básicos de fotografía y edición. En este curso se profundizará en el aprendizaje del manejo de cámara, haciendo hincapié en el modo manual y en las herramientas de edición. El curso se completa con la realización de distintas sesiones de estudio, así como el montaje de algún fotovideo.

## Argazkigintza mugikorrekin)

Beti telefono mugikor bat eramatearen abantailetako bat da edozein unetan argazkiak ateratzeko aukera ematen duela da. Ahalik eta etekin handiena ateratzen ikastea izango da ikasturte honetako helburu nagusietako bat. Kamera-aukerak doitzen irakatsiko da, eta, horrez gain, «Pro» modua eta argazkiak doako APPS desberdinekin lantzen ikasiko da.

## Fotografía con móviles

Una de las ventajas de llevar siempre un teléfono móvil es que permite sacar fotografiás en cualquier momento. Aprender a sacarle el máximo partido será uno de los objetivos fundamentales de este curso. Se enseñará a ajustar las opciones de cámara así como aprender el modo "Pro" y a tratar las fotografiás con distintas APPS gratuitas.

## Analogikora itzulera
(laborategia zuri-beltzean)

Ikastaro honetan zuri-beltzeko argazkigintzaren oinarrizko ezagutzak ikasiko dituzu; negatiboak errebelatzea, lehen kopiak, handitzeak, etab.

## Vuelta a lo analógico
(laboratorio en blanco y negro)

Se aprenderá a realizar desde las En este curso se aprenderá lo básico de la fotografía en blanco y negro; revelado de negativos, primeras copias, ampliaciones, etc.

## Estudioko argazkigintza

Estudioko oinarrizko argiztapenak eta kontraargiak egiten ikasiko da, argi ikusgarriekin amaituz.
Argiztapen-eskema asko dauden arren, ikastaroaren ardatza eskema sinpleak izango dira, baliabide askoren beharrik gabe eta neurri batean espazio pribatura eraman ahal izateko.

## Fotografía de estudio

Se aprenderá a realizar desde las iluminaciones básicas de estudio, hasta contraluces, acabando con luces espectaculares. A pesar de que existen muchos esquemas de iluminación, el curso se centrará en esquemas sencillos, que no necesiten de muchos medios, y que se puedan trasladar en cierta medida al espacio privado.

## Kameraren erabilera

Ikastaro honetan argazki-kamerari ahalik eta etekin handiena ateratzen ikasiko da. Ekorketak egiteko edo mugimendua gelditzeko abiadurak erabiltzen irakatsiko da, baita eremu-sakonera, ISO eta abar kontrolatzen ere.

## Manejo de cámara

En este curso se aprenderá a sacarle el máximo partido a la cámara de fotos. Se enseñará a utilizar las velocidades para realizar barridos o detener el movimiento, a controlar la profundidad de campo, el ISO, etc.





# ZERAMIKA
# CERÁMICA

**URTEKO IKASTAROAK** · CURSOS ANUALES

| | | | | | | | Orduak / Horas | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z-601 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 17:00-19:00 | 4 | Hastapen ikastaroa / Curso de iniciación |
| Z-602 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 19:00-21:00 | 4 | |
| Z-601 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 17:00-19:00 | 4 | Zeramika teknikak / Técnicas cerámicas |
| Z-602 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 19:00-21:00 | 4 | |
| Z-603 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 17:00-19:00 | 2 | Sortu zure baxera / Crea tu vajilla |
| Z-604 | ● | ○ | ○ | ○ | ○ | 19:00-21:00 | 2 | Azulejo teknikak / Técnicas de azulejo |
| Z-605 | ○ | ○ | ● | ○ | ○ | 19:00-21:00 | 2 | Irudiak modelatzea. Zeramika-eskultura / Modelado de figuras. Escultura cerámica |
| Z-606 | ○ | ○ | ○ | ● | ○ | 17:00-19:00 | 2 | Garatu zure proiektuak / Desarrolla tus proyectos |

## Hastapen ikastaroa

Buztinaren lanketan esperientziarik ez duten pertsonentzat pentsatutako tailerra da. Oinarrizko teknikak erakutsiko dira lehen zeramika piezak sortzeko. Elementuhauen apainketarako erabiliko diren esmalteak prestatuko dira.

## Curso de iniciación

Se trata de un taller pensado para personas sin experiencia en el trabajo con barro. Se mostrarán técnicas básicas para crear las primeras piezas cerámicas. Se prepararán los esmaltes que se utilizarán para la decoración de estos elementos.

## Zeramika teknikak

Zeramika noinarrizko ezagutzak izatea gomendatzen da. Teknika ezberdinak landuko dira. Batetik, konstrukzio teknikak: bolak, txurroak, plakak eta moldeak. Bestetik, dekorazio teknikak: engobeak, esgrafiatua, hari-idorra, erreserbak, transferentziak, estanpazioa, nericomi... Koloreetako esmalteen teorian sakonduko da.

## Técnicas cerámicas

Se recomienda tener conocimientos básicos de cerámica. Se trabajarán diferentes técnicas. Por un lado, las técnicas de construcción: bolas, churros, placas y moldes. Por otro, técnicas de decoración: engobes, esgrafiado, cuerda seca, reservas, transferencias, estampación, *nericomi*... Se profundizará en la teoría de esmaltes de colores.

## Garatu zure proiektuak

**Zeramika teknikak menderatzea ezinbesteko baldintza izango da.** Aldez aurretik zirriborro, proba eta abarrekin ondo definitutako eta landutako proposamenak, proiektuak eta ideiak garatzeko tailerra da, modu autonomoan, baina beharrezko aholkularitza eta zuzendaritzarekin.

## Azulejo teknikak

Hainbat teknika ezagutzeko ariketak egingo dira, azulejo formatu batera egokituz eta patroiekin, ehundurekin, erliebearekin eta koloreekin esperimentatuz. Ikasturtean zehar mural txikiak lortzeko konposizioak egingo dira.

## Irudien modelatzea.
### Zeramika-eskultura

Modelatzea buztina bezalako material malgu bat zati txikietan eranstean datza, hiru dimentsioko objektu baten irudikapen errealak lortu arte. Ikasleak objektuak erreproduzitzen hasiko dira, bolumenak libreki modelatzera heltzeraino.

## Sortu zure baxera

Diseinu pertsonalak dituzten baxera kreatiboak sortuko dituzte ikasleek: platerak, kaikuak, katiluak,... Formak eta dekorazioa lantzen eta diseinatzen ikasiko dute. Horretarako jatorrizko piezak buztinean egingo dituzte eta bertatik abiatutako eskaiolazko moldeak egingo dituzte ondorengo ekoizpena gauzatzeko.

## Desarrolla tus proyectos

**Será requisito indispensable dominar las técnicas cerámicas.** Se trata de un taller para el desarrollo de propuestas, proyectos e ideas propias, bien definidas y trabajadas previamente con bocetos, pruebas, etc, para llevarlas a cabo de manera autónoma, pero con el asesoramiento y dirección necesaria.

## Técnicas de azulejo

Se realizarán ejercicios para conocer diferentes técnicas adaptándolas a un formato de azulejo, experimentando con patrones, texturas, relieve y colores. A lo largo del curso se realizarán composiciones para lograr pequeños murales.

## Modelado de figuras.
### Escultura cerámica

El modelado consiste en ir añadiendo fragmentos de un material maleable como el barro en pequeñas porciones, hasta conseguir representaciones reales de un objeto en tres dimensiones. Se comenzará reproduciendo objetos para llegar a modelar volúmenes de manera libre.

## Crea tu vajilla

El alumnado creará una vajilla creativa con diseños personales: aprenderán a trabajar y diseñar y decorar platos, kaikus, tazas,... Para ello elaborarán las piezas originales en arcilla y moldes de escayola a su posterior producción.



# ZAHARBERRITZEA

## RESTAURACIÓN

**URTEKO IKASTAROAK** · CURSOS ANUALES

| | | | | | | | Orduak<br>Horas |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AI-201 | ● | ○ | ○ | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |
| AI-202 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 6 |
| AI-203 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 18:00-21:00 | 6 |
| AI-201 | ● | ○ | ○ | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |
| AI-202 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 18:00-21:00 | 6 |
| AI-203 | ○ | ● | ○ | ● | ○ | 18:00-21:00 | 6 |

Hastapen ikastaroa
Curso de iniciación

Garatu zure proiektuak
Desarrolla tus proyectos

**LAUHILEKO IKASTAROK** · CURSO CUATRIMESTRAL

**1. LAUHILEKOA · 1º CUATRIMESTRE**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AI-204 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |
| AI-204 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 15:00-18:00 | 3 |

Marketeria
Hastapen ikastaroa
Marquetería
Curso de iniciación

Marketeria
Garatu zure proiektuak
Marquetería
Desarrolla tus proyectos



## Hastapen ikastaroa

Ikastaro honetan altzarien zaharberritzearen oinarrizko ezagutzak azalduko dira. Zaharberritze lanei loturiko hainbat teknika eta tapizeria ere landuko dira modu eta material tradizionalak nahiz gaur egungoak erabiliz. Altzariak dekoratzen ere irakatsiko da.

## Curso de iniciación

En este curso se explicarán los conocimientos básicos sobre restauración de muebles. También se trabajarán diversas técnicas relacionadas con la restauración y el trabajo de tapizado, utilizando formas y materiales tanto tradicionales como actuales. También se enseñará a decorar muebles.

## Garatu zure proiektuak

Zaharberritze, tapizeria eta dekorazioan aurretiko ezagutzak dituzten ikasleei bideratutako ikastaroa. Parte-hartzaile bakoitzak bere altzaria zaharberritu edo itxuraldatzeko diziplina ezberdinak erabili ahal izango ditu eta lan bakoitzarekin teknika eta material desberdinak ezagutu ahal izan ditu.

## Desarrolla tus proyectos

Curso dirigido a personas con conocimientos previos en restauración, tapicería y decoración. Cada participante podrá utilizar diferentes disciplinas para restaurar o transformar su mueble y con cada trabajo podrá seguir profundizando en diversas técnicas y materiales.

## Marketeria
### hastapen ikastaroa

Marketeria teknika ezberdinak bereganatuko ditu ikasleak ikastaro honetan, motibo geometrikoak nahiz bestelakoak nola burutzen diren praktikatuz eta horretarako egokienak diren erreminta eta prozedurak ikasiz: egur xaflak nola eta zerekin moztu, gainazalean nola eta zein itsasgarrirekin itsatsi, akabera mota desberdinak...

## Marquetería
### curso de iniciación

En este curso se enseñarán diferentes técnicas de marquetería, practicando los motivos geométricos y de otro tipo y aprendiendo las herramientas y procedimientos más adecuados para ello: cómo cortar planchas de madera, cómo pegarlas en la superficie y con qué adhesivos, diferentes tipos de acabados,...

## Marketeria
### garatu zure proiektuak

Marketerian aurretiko ezagutzak dituzten ikasleei zuzendua. Bertan, marketeria teknika ezberdinetan sakonduko da eta ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala burutu ahal izango du.

## Marquetería
### desarrolla tus proyectos

Dirigido al alumnado con conocimientos previos de marquetería. En este curso se profundizará en diferentes técnicas de marquetería y cada cual podrá llevar a cabo su proyecto personal.

# PATCH WORK



| URTEKO IKASTAROAK · CURSOS ANUALES | | | | | | | **Orduak** Horas | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Pa-401 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 16:00-18:30 | 5 | Hastapen ikastaroa<br>Curso de iniciación |
| Pa-402 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 18:30-21:00 | 5 | |
| Pa-403 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 16:00-18:30 | 2,5 | |
| Pa-404 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 18:30-21:00 | 2,5 | |
| Pa-405 | ○ | ○ | ○ | ● | ○ | 16:00-18:30 | 2,5 | |
| Pa-401 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 16:00-18:30 | 5 | Ikastaro aurreratua<br>Curso avanzado |
| Pa-402 | ● | ○ | ● | ○ | ○ | 18:30-21:00 | 5 | |
| Pa-403 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 16:00-18:30 | 2,5 | |
| Pa-404 | ○ | ● | ○ | ○ | ○ | 18:30-21:00 | 2,5 | |
| Pa-405 | ○ | ○ | ○ | ● | ○ | 16:00-18:30 | 2,5 | |



## Hastapen ikastaroa

Patchwork sormenezko joskintzako teknika bat da, erabiltzen ez diren oihal zatiak edo horretarako bereziki diseinatutako oihalak elkartzean datzana. Lehen kontaktua egiteko, jostotzara bat egingo da, bloke txiki eta sinpleen sekuentzia bat eginez. Ondoren, ikasleak bere lehen ohe-estalkia sortuko du, teknika desberdinetan dituen ezagutzak sendotzeko eta teknika berriak ikasten jarraitzeko.

## Curso de iniciación

El patchwork es una técnica de costura creativa que consiste en la unión de distintos fragmentos de tela en desuso o de telas especialmente diseñadas para tal fin. Para tomar un primer contacto se realizará un costurero realizando una secuencia de bloques pequeños y sencillos. Tras esto se le animará a crear su primera colcha para consolidar sus conocimientos en las diferentes técnicas y seguir aprendiendo técnicas nuevas.

## Ikastaro aurreratua

Patchworkean oinarrizko ezagutzak dituzten pertsonei zuzendua. Ikastaro honetan teknika aurreratu eta ezberdinak landuko dira. Izarren eta zotzen teknikan oinarritutako lanak garatuko dira.

## Curso avanzado

Dirigido a personas con conocimientos básicos en patchwork. En este curso se avanzará y diversificarán las técnicas. Se crearán trabajos basados en la técnica de estrellas y palillos.

## IZEN-EMATEA · INSCRIPCIÓN

**Online:** irailak 2-13 de septiembre
**kultura.errenteria.eus/xenpelar-tailerrak**

**Presentziala · Presencial:** irailak 9-13 de septiembre
**ZU! Zure Udala (Herriko plaza z/g)**
**Aldakonea eraikina (Aldakonea, 2. Beraun)**
Aurretiko hitzordua · Cita previa: irailak 5-13 de septiembre
**943449600 / 010 telefonoan**

## EGUTEGIA · CALENDARIO

* **Behin behineko zerrenden argitalpena: irailak 18**
  Publicación de listas provisionales: 18 de septiembre
* **Uko egiteko epea: irailak 22**
  Plazo de desistimiento: 22 de septiembre
* **Behin betiko zerrenden argitalpena: irailak 26**
  Publicación de listas definitivas: 26 de septiembre
* **Kurtso hasiera: Irailak 30**
  Comienzo de curso: 30 de septiembre
* **2. lauhilekoaren hasiera: otsailak 17**
  Comienzo 2º cuatrimestre: 17 de febrero
* **Kurtso amaiera: ekainak 20**
  Fin de curso: 20 de junio

# TASAK · TASAS

| Urteko ikastaroak | | Cursillos Anuales |
|---|---|---|
| 6 ordu/astean | 208,69€ | 6 horas/semana |
| 5 ordu/astean | 202,81€ | 5 horas/semana |
| 4 ordu/astean | 162,24€ | 4 horas/semana |
| 3 ordu/astean | 156,36€ | 3 horas/semana |
| 2,5 ordu/astean | 148,76€ | 2,5 horas/semana |
| 2 ordu/astean | 141,17€ | 2 horas/semana |

| Lauhileko ikastaroak | | Cursillos cuatrimestrales |
|---|---|---|
| 6 ordu/astean | 104,33€ | 6 horas/semana |
| 5 ordu/astean | 101,40€ | 5 horas/semana |
| 4 ordu/astean | 81,12€ | 4 horas/semana |
| 3 ordu/astean | 78,18€ | 3 horas/semana |
| 2,5 ordu/astean | 74,39€ | 2,5 horas/semana |
| 2 ordu/astean | 70,59€ | 2 horas/semana |

Matrikula tasa gaitasun ekonomikoaren arabera egokitu daiteke. Horretarako eskaera presentzialki edo online **(https://errenteria.eus/zu/progresibitatea/)** eredu normalizatuan egin beharko da izen-ematearekin batera, bertan adierazitako dokumentazioa aurkeztuz.

ESKAERA HAU MATRIKULAREKIN BATERA AURKEZTEN EZ BADA, TASA EZINGO DA EGOKITU ETA KOPURU OSOA ORDAINDU BEHARKO DA.

Banku-helbideraketa bidez ordainduko da.

Materiala eta lanabes pertsonalak ez daude ordaindutako zenbatekoan.

Las tasas de matrícula se podrá adaptar en función de la capacidad económica. Para ello, se debe realizar la solicitud presencialmente u online (https://errenteria.eus/es/zu/progresividad/) en modelo normalizado junto con la matrícula y aportar la documentación señalada en la misma.

SI NO SE REALIZA LA SOLICITUD JUNTO CON LA MATRÍCULA, LA TASA NO SE PODRÁ ADAPTAR Y HABRÁ QUE ABONARLA EN SU TOTALIDAD.

El pago de la tasa se realizará mediante domiciliación bancaria.

Los materiales y herramientas de uso personal no están incluidos.

## INFORMAZIOA · INFORMACIÓN

943449635

**kultura.errenteria.eus/xenpelar-tailerrak**

# **OHARRAK** · OBSERVACIONES

* Ikastaro berdinean ordu edo egun ezberdinetarako 2 izen-emate egin daitezke gehienez, baina bakarra esleituko da.
  En el mismo curso se podrán realizar un máximo de 2 inscripciones para diferentes horas o días, pero sólo se adjudicará una.

* Diziplina/tailer berdinean ikastaro ezberdinetan izena eman ahal izango da.
  En el mismo taller/disciplina se podrán realizar varias inscripciones en diferentes cursos.

* Ikastaro batean baino gehiagotan matrikulatzeak ez du bonifikaziorik. Dagokion tasa ordaindu beharko da.
  Matricularse en más de un curso no tiene bonificación. Se abonará la tasa correspondiente a cada uno.

* Plazen esleipena zozketa bidez egingo da eskaera kopurua plaza kopurua baino handiagoa den ikastaroetan. Zeramika tailerraren kasuan, gehienez ere, 4 ordu esleituko lirateke. Izen-emateak ez du plaza bermatzen.
  La adjudicación de plazas se realizará por sorteo en aquellos cursos en los que el número de solicitudes sea superior al número de plazas. En el caso del taller de cerámica se adjudicarían como máximo 4 horas. La inscripción no garantiza la plaza.

* Zozketen behin-behineko emaitzak posta elektronikoz, web-orrian eta, presentzialki, Lekuona Fabrikan egokituko diren euskarrietan.
  Los resultados de los sorteos se darán a conocer a través del correo electrónico facilitado, en la página web y, presencialmente, en los paneles habilitados en Lekuona Fabrika.

* Esleitutako plazari uko egiteko epe bat zabalduko da behin betiko zerrendak argitaratu aurretik. Eskaera web-orrian eta presentzialki Lekuona Fabrikan egin beharko da.
  Se abrirá un plazo para renunciar a la plaza adjudicada antes de la publicación de las listas definitivas. La solicitud deberá realizarse en la página web y en Lekuona Fabrika.

* Ikastaroak bertan behera gelditu ahalko dira gutxieneko 4 izen-emateetara iristen ez badira.
  Los cursos podrán quedar anulados en caso de no contar con un mínimo de cuatro personas matriculados.

50 URTE

Xenpelar tailerrak

ERRENTERIA UDALA

KULTURA kreaktiboa